

'Zurekin': denda ulertzeko modu berri bat

EROSKIk denda-eredu aurrendaria zabaldu du Iruñean, arreta pertsonalizatua eta produktu fresko eta osasungarriak lehenetsiko dituena

EROSKIk berriz ere sortu du eredua: supermerkatua ulertzeko modu berri bat, EROSKI Zurekin denda, hain zuzen. Hiru izango dira "Zurekin Denda" saltoki berriztailearen bereizgarriak edo ikurrak: arreta pertsonalizatua, erosketak egiteko erraztasuna eta elikadura osasungarria sustatzea tokian tokiko elikagai freskoen alde eginez. Iruñean ireki du gisa horretako lehen denda EROSKIk, gaur egungo bezeroen beharretara egokitzeko asmoz, baina, era berean, bere izaeraren eta ibilbidearen ezaugarri nagusiei uko egin gabe: elikadura orekatuaren alde eginez jarraituko du, tokiko ekonomia sustatuz eta auzo bizitzarekin bat eginez. Serafin Olabe kalean dago supermerkatu berria. Apirilaren 24an ireki zituen ateak auzo mailako denda horrek, eta esan liteke gainerakoetatik desberdina dela guztiz. "Denda-laborategia" da, maila batean, proposamen berriztaile batzuk dakartza; horiek zer-nolako emaitza ematen duten ikusi eta behar diren egokitzapenak egin ondoren, gainerako saltoki-sarera hedatzea da asmoa, eta dendak eraldatzeko plana gauzatzea hurrengo hiru urteetan. Elkartasunak leku handia izango du saltoki berrian.: Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioarekin elkarlanean egindako programa bati esker, bezeroei eskaintzeko bezain freskoak ez diren produktuak saltokitik kendu eta erakunde horren esku jarriko ditugu; horretaz gain, elkartasun-kanpainak ere egingo ditugu elikagaiak biltzeko.



Javier Amezaga, EROSKiko zuzendari nagusia (ezkerretik hirugarrena), Jose Javier Esparza, Nafarroako Foru Gobernuako Nekazaritza, Ingurumen eta Tokiko Administrazio sailburua (eskuinetik hirugarrena) eta Agustin Markaide (eskuinetik bigarrena), EROSKiko presidentea.



Frutategia. Tokiko produktuei leku nabarmena eskaintzen zaie gune guztietan, baina frutategian bereziki, non inguruko nekazariak ekarriak diren sasoiko fruta eta berduren zati handi bat. Era berean, gune horretan zukuak eta mazedoniak prestatzen dituzte hala nahi duten bezeroentzat, askotariko entsaladak ere bai hainbat formatutan, frutak zatitu eta erretiluetan eskaintzen dituzte berehala jateko, eta bezeroei beti jakinarazten zaie produktuak nondik etorriak diren, sukaldean zer-nolako aukerak eskaintzen dituzten eta zer elikadura-ezaugarri dituzten.



Harategia eta urdaitegia. Supermerkatu-eredu honekin, salmahaietan ageri diren haragi zatiak unean bertan moztuko dizkiote langileek bezeroari. Hemen ere leku nabarmena hartzen dute tokiko ekiozileek. Iruñean ireki berri den denda honetan, adibidez, Nafarroan modu ekologikoan hazitako txahalen haragia aurki daiteke, baita bertako gazta eta hestebete sorta ederra ere.



Ogitegia. Ogi egin berriaren usaina hedatzen da gune honetan, etengabe labetik ateratzen ari dira-eta ogi motarik ohikoenak. Bezeroek, gainera, aukera izango dute unean bertan egindako ogi horiek dastatzeko, doan eskainiko zaizkie-eta proba eta ezagut ditzaten.



Parafarmazia. Lurrindegia handitu eta espezializatu egin da saltoki berrian. Zainketa pertsonalerako aholkuak eta informazioa emango zaizkie bezeroei, zer produktu komeni zaizkien jakin dezaten. //

KONTSUMITZAILEEN IDEIEKIN

Denda-eredu berri honek nolakoa behar zuen zehazteko orduan, EROSKIren ohiko kontsumitzaile diren 2.000 lagunek baino gehiagok parte hartu dute. Hainbat iritzi eta iradokizun aurkeztu zituzten Kontsumitzaileen Eztabaidaguneetan (FOCO esaten diegu), eta hortik atera ditugu "Zurekin Denda" zehazteko oinarriak.

Honako hauek izan ziren ekarpen nagusiak: kalitate bikaina eskaintzea produktu freskoetan; "elikagai osasungarriak" eta "elikagai freskoen" arteko harreman estua sustatzea; hurbiltasunari garrantzia ematea, hori izan dadin erosketa non egin erabakitzeko orduan kontsumitzaileak kontutan duen alderdi nagusietakoa; saltokiko langileen aholkuak eta laguntza jasotzeko aukera ematea, batez ere elikadurari, nutrizioari eta zainketa pertsonalari dagozkien gaitan.



Bezeroen ikasgela

EROSKIk beste ezer baino gehiago zaintzen du bezeroen osasuna. Hori dela eta, jendeari formazio eta informazio nutrizionala emateko zerbitzua jarri du denda berrian. "Bezeroen ikasgela" izango da, supermerkatu barrenean dagoen areto bat, non modu orekatuan elikatzeko informazioa, errezetak eta aholkuak emango dituen nutrizionista batek. Nutrizioarekin zerikusia duten gaiak ere landuko dira tailerrak eginez, hitzaldiak, mintegiak, jardunaldiak eta haurrentzat prestatzen diren jarduerak jostagarriak, guztiak ere EROSKI Fundazioak elikadurari eta ohitura osasungarriari buruz antolatzen dituen jardunaldi hezigarrien barrenean.